

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

Zk-911

20/2004 DEKRETUA, otsailaren 3koa, Euskal Herriko Polizia kidegoetako funtzionarioen lanpostuen hornidurari buruzko araudia bigarren aldiz aldatzen duena.

Euskal Herriko Polizia kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko ohiko sistema barne-sustapena da, eta turno librea Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko erreserbatua dago. Hori horrela, Agente lehen, Ofizial-ondokoa, Ofiziala, Komisario-ondokoa, Komisario, Intendente, eta Intendenteburu kategorietara erreserbatu lanpostuak hornitzeko, horietako bakoitzean sartzeko hautaketa-prozesua eratu beharko da lehenengoz. Agente kategorian sartzea, Ertzaintzaren kidegoetako goi-mailako kategorietan sartzeko barne-sustapenarekin bateratu ahal izatea bilatu zen Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea indarrean sartu zenean. Kategoría ezberdinetan sartzea ahalbidetzen duen lanbide-trebakuntza Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren eskumena da. Halaber, gaitasun profesionala mantentzeko eta hobetzeko prestakuntza jarduerak, baita hainbat polizia-zerbitzuz eskatzen duten espezializazioa lortzekoak ere ikastegiaren eskumenekoak dira.

Horren guztiaren ondorioz, Ertzaintzaren kategoriari Agente kategorian sartu diren funtzionarioek hornitzen dituzte. Baina, hori horrela bada ere, kidegoaren goi-mailako kategoriei dagozkien zereginen jarduera ezin da alde batera utzi, horregatik legeak kategoría behe-ragoko funtzionarioak kategoría goragoko zereginetan aritzeko gaitzea aurreikusten du 72. artikuluan honakoa dioenean: «kasuan kasuko eskala eta kategorian nahiko funtzionario ez badago, eta zerbitzuaren beharri-zanak horrela egitea aholkatzen badu, zerbitzu eginkizunetan bete ahalko dira norberaren kategoriari ez dagozkion lanpostuak edo zereginak, beti ere betewko duena eskala berekoa denean edo hurrenez hurreneko behetako.»

Lanpostua denbora batez bete ahal izateko eskatzen den baldintzetako bat ez betetzeko salbuespenezko dispensa analogikoki aplikatzen ari da eskatu espezialitatearen funtzionarioak falta direnean. Arrazoia nabaria da, izan ere, espezialitatea lortzeko prestakuntza prozesua horizontal edo zeharkakoa baita, eta gora jotzeko, edo barne-sustapenaren bidez kategoría lortzeko berariazko prestakuntza bertikala da. Beraz, kategoriari buruz ari garenean, lanpostu baterako eskatzen den prestakuntza gradu egokia ez duen pertsona onartzen

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Nº-911

DECRETO 20/2004, de 3 de febrero, de segunda modificación del reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco.

El sistema ordinario de ingreso en las distintas escalas y categorías de los Cuerpos de Policía del País Vasco es la promoción interna, reservándose el acceso por turno libre al ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica. Ello supone que la provisión de los puestos de trabajo reservados a las categorías de Agente primero, Suboficial, Oficial, Subcomisario, Comisario, Intendente y Superintendente pasa por la previa articulación de los procesos selectivos de ingreso en cada una de ellas. Con la entrada en vigor de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco se buscó compatibilizar el ingreso en la categoría de Agente con la promoción interna a las categorías superiores del Cuerpo de la Ertzaintza. La capacitación profesional que permite el acceso a las distintas categorías está reservada a la Academia de Policía del País Vasco. De idéntico modo, las actividades de carácter formativo tendentes al mantenimiento y mejora de la capacitación profesional, así como las que persiguen la especialización que el ejercicio de determinados servicios policiales requiere, son también competencia de la Academia.

Consecuencia de todo ello es que las distintas categorías de la Ertzaintza se nutren de funcionarios que han ingresado en la Ertzaintza en la categoría de Agente. Pero, siendo ello así, no es posible hacer dejación del ejercicio de las funciones correspondientes a las categorías superiores del Cuerpo, por lo que la Ley prevé la habilitación en funciones de superior categoría a los funcionarios de las categorías inferiores al establecer en su artículo 72 que «de no existir funcionarios suficientes en la escala y categoría correspondiente, y si las necesidades del servicio así lo exigen, podrán conferirse comisiones de servicio para el desempeño de puestos de trabajo o funciones propias de otra categoría distinta a la de pertenencia, siempre que sean de la misma escala o de la inmediatamente inferior.»

Esta dispensa excepcional del cumplimiento de uno de los requisitos del puesto en su provisión transitoria viene aplicándose de forma analógica a los supuestos de insuficiencia de funcionarios con la especialidad requerida. La identidad de razón es evidente, toda vez que, en tanto que la adquisición de una determinada especialidad constituye un proceso formativo de carácter horizontal o transversal, la adquisición de una determinada categoría mediante el procedimiento de ascenso o promoción interna no deja de ser un proceso de forma-

bada, ez dago arrazoirik espezialitateaz ari garenean gauza bera ez egiteko, are gehiago kontuan hartzen badugu ezin direla kasuan kasuko zereginak bete gabe utzi.

Hori horrela bada ere, gomendagarria eta egokia dirudi espezialitate-baldintza ez betetzeko salbuespeneko dispensa hori arautua egotea. Hori dela eta, beraiazko xedapena eman behar da zeinak jasoko baitu funtzionario batek, espezialitate-baldintza betetzen ez bada ere, zerbitzu eginkizunetan hornitu ahalko duela lanpostu bat, lanpostu horri dagozkion zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzen bada; beti ere, zerbitzuaren beharrianak horrela aholkatzen duenean eta irizpide objetiboak kontuan hartuak.

Horrenbestez, Ertzaintzan eta ez beste inon aplikatu daitekeen xedapena denez, Ertzaintza Kontseiluari eta Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Herriko Polizia kidegoetako funtzionarioen lanpostuen hornidurari buruzko araudian, hain zuzen ere, haren zazpigarren xedapen gehigarrian, bisa gehitzea:

«Zazpigarrena, bis.— Ertzaintzaren eremuan, kasuan kasuko espezialitatea duten funtzionario nahiko egon ezean, zerbitzuaren beharrianek horrela aholkatuz gero, eta irizpide objetiboak kontuan hartua, espezialitate-baldintza duten lanpostuak espezializatzeko ikastaroa gainditu ez duten funtzionarioei eskaini ahalko zaizkie zerbitzu eginkizunetan, lanpostu horietako zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzen bada.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Jaurlaritzaren Kontseilura igor dadila.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko otsailaren 3an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua
JAVIER BALZA AGUILERA.

ción especializada vertical, por lo que si, hablando de la categoría, se admite el desempeño de un puesto por quien no reúne el grado óptimo de formación requerido para el mismo, no hay razón alguna para no hacerlo cuando se trata de la especialidad, máxime si tenemos en cuenta que en ningún caso es posible hacer dejación del ejercicio de las funciones correspondientes.

No obstante lo anterior, resulta aconsejable y conveniente que esa posibilidad de dispensa excepcional del requisito de especialidad cuente con un anclaje normativo suficiente, para lo cual se hace precisa la aprobación de una disposición que expresamente recoja la posibilidad de que, si las necesidades del servicio así lo exigen y siempre en atención a criterios de carácter objetivo, puedan conferirse comisiones de servicio para el desempeño de puestos de trabajo con requerimiento de especialidad a funcionarios que, no obstante no tener acreditada la especialidad de que se trate, garanticen una adecuada prestación de las funciones correspondientes a dichos puestos.

En su virtud y tratándose de una disposición de exclusiva aplicación a la Ertzaintza, oído el Consejo de la Ertzaintza, oída la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Interior, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 3 de febrero de 2004,

DISPONGO:

Artículo único.— Se añade una disposición adicional séptima bis al reglamento de provisión de puestos de trabajo de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, con la siguiente redacción:

«Séptima bis.— En el ámbito de la Ertzaintza, de no existir suficiente número de funcionarios con la especialidad correspondiente, si las necesidades del servicio así lo exigen y siempre en atención a criterios de carácter objetivo, podrán conferirse comisiones de servicio para el desempeño de puestos de trabajo con requisito de especialidad a funcionarios que, no obstante no tener superado el curso de especialidad de que se trate, garanticen una adecuada prestación de las funciones correspondientes a dichos puestos.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Elévase al Consejo de Gobierno

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2004

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.